

Historia klinikoa eskuratzeko baimena

Baimen informatua, amiantoaren biktimentzako konpentsazio ekonomikorako eskubidea aitortzeko beharrezkoa den osasun ziurtagiria eskatzeko, urriaren 19ko 21/2022 Legea eta ekainaren 17ko 483/2025 Errege Dekretua garatze aldera.

Amiantoaren biktimentzako konpentsazio funts bat sortzeko urriaren 19ko 21/2022 Legeak funts hori eratu zuen amiantoaren biktimentzako konpentsazio mekanismo gisa, eta, horretarako, aurreikusten zuen onuradunentzat konpentsazio ekonomikoak ezartzea erregelamendu bidez, Espainian pertsona orok bere lan, etxe edo ingurumen eremuan amiantoaren esposiziopean egoteagatik osasunaren gainean izandako kalte galerak osorik konpontzeko.

2025eko ekainaren 18an argitaratu da BOEn **483/2025 Errege Dekretua, ekainaren 17koa, Amiantoaren biktimentzako konpentsazio ekonomikorako eskubidea aitortzeko baldintzak ezarri eta prozedura arautzen duena**. Konpentsazio ekonomikoak ordaintzeko prozedurak aurretiazko fase bat du, aipatutako errege dekretuaren I. eranskinean aipatzen diren eta kalte ordaina jasotzen ahal duten patologiak egiaztatzeari buruzkoa, bai eta patologia horren eta amiantoarekiko esposizioaren arteko kausazko loturari buruzkoa ere.

483/2025 Errege Dekretuaren azken xedapenetako laugarrenak ezartzen duenez, errege dekretu hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera jarriko da indarrean. ***Data horretatik aurrera, 3.1.a artikuluan aipatzen diren onuradunentzat soilik izanen ditu ondorioak; pertsona hauentzat, hain zuzen: II. eranskinean aurreikusten diren eta amiantoarekiko esposizioak sorrarazten dituen patologietako batek eragindako kontingentzia profesional baten ondorioz, ezintasun iraunkorragatiko pentsio baten aitortpen administratibo edo judizial irmoa lortu dutenak, edozein mailatakoa dela ere ezintasun hori.***

Interesdunek **amiantoarekiko esposizioak sorrarazten dituen eta II. eranskinean aipatzen diren patologien diagnostikoaren ziurtagiriaren** eskaera aurkeztu beharko dute beren autonomia erkidegoko Osasun Departamentuan edo antzeko organoan eta Ceuta eta Melilla hirietako Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalean. 483/2025 Errege Dekretuaren 7.f artikuluan (Ziurtagiria eskatzea) ezarritakoaren arabera, **eskabide ereduan interesdunak bere historia klinikoa eskuratzeko ematen duen baimena jaso beharko da**, amiantoarekiko esposizioaren ondoriozko patologien diagnostikoaren ziurtagiria emateko, salbu eta eskatzailea amiantoak eragindako pertsonaren kausaduna bada.

Eskatzailearen datuak

Izen-deiturak: _____

NANa/AIZa: _____

Ordez kariaren datuak (hala badagokio)

Izen-deiturak: _____

NANa/AIZa: _____

Eskatzailearekiko harremana: _____

Zer den: ☐ Legezko tutorea ☐ Ahalduna ☐ Senide baimendua

Baimenaren xedea

Dokumentu honen bidez, nik, behean sinatzen dudanak, edozein mailatako ezintasun iraunkorragatiko pentsioduna naizen aldetik, berariaz, borondatez, askatasunez, kontzienteki eta informatuta baimena ematen dut nire historia kliniko osoa edo partziala ikusi eta eskuratzeko, txosten medikoak, proba diagnostikoen emaitzak, tratamenduak eta bilakaera klinikoa barne, amiantoaren biktimentzako konpentsazio ekonomikoa eskatze aldera, 483/2025 Errege Dekretuaren 7.f artikuluan (Ziurtagiria eskatzea) ezarritakoaren arabera (483/2025 Errege Dekretua, ekainaren 17koa, Amiantoaren biktimentzako konpentsazio ekonomikorako eskubidea aitortzeko baldintzak ezarri eta prozedura arautzen duena).

Iraupena eta errebokatzea

Baimen hori baliozkoa izanen da dagokion administrazio prozedura amaitu arte, nik lehenago errebokatzen ez badut. Ulertzen dut baimen hau edozein unetan errebokatzen ahal dudala, idatziz eskatuta, ordura arte egindako erabileren legezkotasunari kalterik egin gabe.

Datuen konfidentzialtasuna eta babesa

Emandako informazioa Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorraren, 3/2018 Lege Organikoaren eta 41/2002 Legearen arabera tratatuko da, eta datu pertsonalen eta klinikoen konfidentzialtasuna eta segurtasuna bermatuko dira. Adierazitako helburuetarako behar-beharrezkoa den informazioa baino ez da eskuratuko.

_____(e)n, 20____(e)ko _____aren _____(e)(a)n_____

Eskatzailearen edo ordez kariaren sinadura